

**Neguko Ligari amaiera etxean.**- Buruntzaldea IKTko infantil, junior eta absolutuek Neguko Ligako laugarren eta azken jardunaldia jokatu zuten larunbatean etxean, Kiroldegiko igerilekuan alegia. Hainbat proba eta distantziatan aritu ziren: 50 eta 100 libre, 100 estilo, 50 tximeleta, 100 bizkar eta 100 brazan. Maila ederra eman zuten denek, guraso eta lagunaren aurrean. Primeran aritu ziren baita ere urtarrilaren 16an, Azpeitian jokaturako Gipuzkoako Neguko txapelketan. Uzta oparoa ekarri zuten bueltan Lasarte-Oriara: Dominak, Euskal Herriko txapelketan parte hartzeko gutxieneko bat eta hainbat marka pertsonal berri. Nahia Jie Villamediana infantilak brontzezko bi domina kolkoratu zituen, 100 bizkar eta 200 estiloetan; kategoria bereko Beñat Alkorta berriz, zilarrezkoa, 50 tximeletan. Xabier Alonso infantilak Euskal Herriko txapelketan aritzeko gutxieneko marka lortu zuen, 400 libreetan. 5'03"-ko denbora egin zuen. Bestalde, Gijonen jokatu den XXII. Neguko Master txapelketan ariko dira Mikel Esnal eta Haiz Mitxelena, urtarrilaren 28tik 31ra. Forma onean dira biak; bolada ona mantentzeko helburuarekin egingo dute igeri bertan.

## 2 KULTURA

### **Musika barrokoa 'Duo L'Incontro'-ren eskutik ostiralean**

Danok Kide elkarteak musika barroko emanaldia antolatu du ostiralerako. 'Duo L'Incontro' izeneko bikotea ariko da bertan, 19:30ean hasita. Bestalde, otsailaren 8an Itsaspeko Zinema Zikloari ekingo dio elkarteak. Hainbat film egongo dira ikusgai hilaren 8an, 15ean eta 22an, Manuel Lekuona kultur etxean.

## 3 UDALA

### **Buenos Aires aldapan egokitze-lanak egingo ditu Udalak**

Zenbait lan egingo ditu Udalak Buenos Aireseko aldapan, irisgarritasuna hobetze aldera. Espaloia zabaldu egingo dute, eta maldaren puntu batetik aurrera norabide bakarreko errepidea ezarri. 600.000 euro inguruko aurrekontua izango dute lanek; urte amaierarako obrak amaitzeko konpromisoa hartu du Udalak.

## 5 ELKARRIZKETA

### **Ipuin-bilduma argitaratu du Harkaitz Canok**

Hamar urte eta gero, Harkaitz Cano idazle lasarteoritarak beste ipuin-bilduma bat argitaratu du: 'Beti oporretan'. Hamalau istorio bildu ditu bertan, espermentalagoak batzuk eta klasikoagoak besteak. Antzerkigintzan murgilduta ere badabil idazlea; Euskaldunon Egunkariaren itxierari buruzko antzerkia ari da idazten orain.



# EPA LASARTE HHI

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

## HELDUEN HEZKUNTZA

2015-2016 IKASTURTEA

**MATRIKULA EPEA ZABALIK  
URTARRILAK 22 ARTE**

Beko kalea bidea 1, 3 (Anbulategi gainean) • Lasarte-Oria • [www.epalasarate.es](http://www.epalasarate.es)



Informazio  
gehiago:  
943 37 64 43  
943 36 66 08

## KULTURA

## Musika barrokoa ostiralean Brigitarretan

Nazioarteko Itsaspeko Zinemako zikloa otsailaren 8tik aurrera izango da

Danok Kide elkarteak antolatutako bi ekintza izango dira hurrengo asteetan Lasarte-Orian. Batetik ostiralean, 'Duo L'Incontro' bikoteak Barroko garaian murgilduko du Ama Brigitarren kapera. Bestetik, otsailaren 8tik aurrera, Nazioarteko Itsaspeko Zinema Zikloko filmak ikusgai izango dira Manuel Lekuonan. Aurten herritar baten filma ikusi ahalko da zikloan, David Sanchez Carretero herritarrena, hain zuzen.

Ostiralean, Danok Kide elkarteak antolatzen dituen Musika Topaketan saio berria izango da. Berriro ere, musika barrokoaz gozatu ahalko da Ama Brigitarren komentuan egingo den emanaldian. Baina bikote berezia izango kontzertua eskainiko duena, 'Duo L'incontro'.

**'L'Incontro' bikotea'**

Itziar Lujanbio oboe joleak eta Francesca Romana harpa joleak osatzen dute bikotea.

Biek Musikeneko Goi Mailako ikasketak egiten ari zirela topo egin zuten Donostian.

Bakoitzak bere bidea egin du. Itziar Koloniara abiatu zen bere formakuntzarekin jarraitzera. Francescak, berriz, maila nazional eta internazionalen kontzertuak eman ditu.

Hiru urte igaro dira geroztik eta berriro elkartu dira ikasi duten guztia partekatu, aberastu eta elkarrekin errepertorio zabal bat lantzeko.

Euskal Herrian eta Frantzia eman dituzte lehenengo kontzertuak. Adibidez, Donostia Kulturak antolaturik, Donostiako Musika Sakratuaren Zikloan parte hartu dute.

**Barroko musika**

'Il salotto barocco' egitaraua eskainiko dute. Honetan Händel, Vivaldi edo Telemann egile ezagunen lanak eta doinu anonimoak eskainiko dituzte. Hala nola, Händelen 'Lascia ch'io pianga' edo Vivaldiren Lau Urtaoetako Neguko 'La pioggia' doina.

Barroko musika gustuko duten herritarrek hitzordua dute, hurrengo ostiralean,



Itziar Lujanbio oboe jolea eta Francesca Romana harpa joleak osatzen dute 'L'Incontro' bikotea.

Ama Brigitarren komentuan arratsaldeko 19:30etik aurrera.

**Itsaspeko zinea**

Bestalde, itsaspeko zinea gogoko duten herritarrek krispetak prestatzeko garaia dute. Lasarte-Oriako Udalaren laguntzaz, Danok Kide elkarteak Real Sociedad taldeko itsaspeko taldeekin batera antolatzen duen Itsaspeko Nazioarteko Zinema zikloa otsailaren 8an izango du lehen saioa.

Otsaileko hiru astelehenean, otsailaren 8, 15 eta 22an, Donostiako Itsaspeko Nazioarteko Zinema zikloa ikusgai izan ziren 9 film labur eta 3 film luze ikusi ahalko dira Manuel Lekuona kultur etxeko aretoan. Sarrera doakoa izango da eta saio guztiak 19:30ean hasiko dira.

**Herritar baten lana**

Nazioarteko, zein inguruko itsas hondoa eta fauna ezagutuko dituzte saioetara hurbiltzen diren herritarrek.

Lehen saioan, otsailaren 8an, sei film eskainiko dira eta horien artean, azpimarragarria da David Sanchez Carretero herritarren lana.

'Motivos para bucear en el Cantábrico' lana herritar honen 'Desde dentro' proiektuko erakuslea dugu. Musika eta irudien bidez, Hondarribitik Donostirako bidea egiten du Davidek sei minututan. Gure kostaldean urpekaritza egiten den txoko ezberdinak erakusten ditu bertan, baita hauetan aurkitu daitezkeen bizitza ere.

Honekin batera, 'Creemos en cero', 'Carmen', 'El arrecife de coral', 'Edless' eta 'El legado de las rias gallegas' osatuko dute eguneko emanaldia.



Otsailaren 15ean, 'El mero calimero', 'La isla azul', 'Ruta Moluscas' eta 'Cozumel' lanei esker, Estatuko edo nazioarteko irla ezberdinetako inguruak ezagutzeko aukera emango dute.

Azkenik, otsailaren 22an, 'Liquid Mirror' film laburra eta 'Arrecifes' lana ikusi ahalko dira.

Film gehienak gazteleraz edo hitzik gabeak dira. 'Ruta Molucas' filma, berriz, euskaraz eskainiko da.



Itsaspeko Nazioarteko Zinema Zikloaren egitarauko irudia. Ondean, David Sanchez Carretero herritarren 'Motivos para bucear en el Cantábrico' film laburraren irudi bat.

**Diruz laguntzen duten erakundeak****Babeslea**

LASARTE-ORIA  
UDALA

Txintxarri ez du bere gain hartuko iritzi-artikuluetan edota irakurleen gutunetan adierazitzekoaren erantzukizunik.

**Laguntzailea****Argitaratzailea:**

Ttakun Kultur Elkartea  
Geltoki kalea 4  
20160 Lasarte-Oria  
**943 366 858/943 371 448**  
G-20407557

**Legezko gordailua:**

SS513/93  
ISSN: 1134-0053

**Inprimategia**

Zeroa Multimedia, S.A.

**Aleak zenbakiko:** 7.800

**txintxarri****Erredakzioa:**

Nerea Eizaguirre, Martín Vicioso,  
Iñigo Gonzalez.

**txintxarri@txintxarri.eus**

**Publizitatea:** Arantxi Zulaika  
**publizitatea@ttakun.eus**

**Laguntzaileak:**

Unai Muñoa, Gorka Lasa,  
Ane Labaka, Mailu Arruti,  
Asier Odriozola, Maider Segurola,  
Gorka Alvarez, Jexux Artetxe,  
Edu Galardi

**Informatikoa:**

Xabier Amadoz

## HIRIGINTZA

# Buenos Aires aldapa egokituko dute

## Urtebeteko epea du Udalak obra bukatzeko

**Udalak Zabaleta auzoko irisgarritasuna hobetzeko plana aurkeztu du. Buenos Aires aldapan espaloien zabalera handituko dute, eta puntu batetik aurrera norabide bakarreko errepidea ezarri. Eusko Legebiltzarrean lortutako akordioari esker lortu du Lasarte-Oriako Udalak hirigintzara bideratzeko miloi bat euroko aurrekontua.**



Buenos Aires aldapan egokitze-lanak egingo ditu Udalak.

## TXINTXARRI

Gutxienez bi metroko zabalera izango du Buenos Aires aldapako espaloiak. Izan ere, alkate Jesus Maria Zaballosek azaldu duenez, "estuegia da gaur egun" eta "jende askok errepidera jo behar du" igo ahal izateko.

Monolitara arteko errepideak bi noranzkoko izaten jarraituko du, baina puntu horretatik aurrera igotzeko aukera besterik ez da egongo. Goiegi aldetik jaitsi beharko da etorkizunean.

### Legebiltzarreko aurrekontuetatik

Eusko Jaurlaritzako aurrekontuetarako EAJK eta PSE-EEK lortutako akordioaren ondorioa da. Lasarte-Oriari hirigintza arloan hobekuntzak egin ahal izateko miloi bat euro egokitu zaio.

600.000 euro inguruko kostua izango du lanak. Beste 400.000 euroak Goikale 20-22 eta Kale Nagusia 51-53 ingurura bideratuko dituzte. Larraldietako zerbitzuek arazoak dituzte gune horretara iristeko, eta pasabidea moldatzeko asmoa dute irisgarritasuna hobetzeko.

Eremu horretako aparkalekuak berrantolatuko dira eta Askorena plaza ere berrurbanizatuko da.

Udal ordezkariak azaldu dutenez, Loidibarrengo eremua berrurbanizatu da, garai batean Urrietako eta Hernaniko Udalek –garai bateko kudeatzaileek– erabilitako irizpideak batuz. Aurten egingo den moldaketa auzoaren berrurbanizazioarekin amaitzeko falta den lana da.

Urte amaierarako lanak bukatzeko konpromisoa hartu du Udalak. Ordurako obrak esleitura eta amaituta egin

beharko du. Horregatik, "ahal den neurrian" prozesua azkartzeko ahalegina egingo dutela adierazi dute.

### Beste proiektuak

Dirua soberan geratuko balitz, Andatza plazan arrapala eta Karmengo elizaren aurreko poligonoen artean zebraidea egingo lituzkete. "Bizilagunek eskatutako neurriak" direla nabarmendu du hirigintza zinegotzi Agustin Valdiviak.

Jaurlaritzak emandako diruarekin Andatzako eta Oriako obrak egitea ezinezkoa balitz, Udaleko aurrekontuetatik egiteko asmoa azaleratu du Valdiviak.

Jesus Maria Zaballosek azpimarratu du "koherenteak" izan direla, "aurreko legealdian eskatutako proiektuak" baitira. Hala ere, "pozik" agertu da Udala baliabideetatik at dirua lortzeko gai izan direlako.

## MUS TXAPELKETA

## Euskal Herriko Mus txapelketako kanporaketa Xirimirin

Urtarrilaren 29an, ostiralez, Euskal Herriko VIII. Mus txapelketako Lasarte-Oriako kanporaketa jokatu da Xirimiri elkartean, 22:00etatik aurrera.

Irabazten duen bikoteak otsailaren 20an jokatu den Gipuzkoako kanporaketarako txartela eskuratuko du. Horretan ere garaile izanez gero, martxoaren 5ean Zuberoko Urdiñarbe herrian jokatu den finalean txapela eskuratzeko aukera izango luke bikoteak.

Txapelketako irabazleek txapelak eta garaikurrak gain, 3.000 euroko saria eta nazioartera lau lagunentzat bidaiak eskuratuko dute. Partehartzaile guztiak orogarriak izango dituzte.

Izena ematea egunean bertan egingo da. Txapelketa honi buruzko informazio gehiago [ehmus.eus](http://ehmus.eus) orrialdean dago esku-ragarri.

## IKASTAROA

## Makilaje ikastaroa eta gorputza ezagutzeko saioak

Amarau Klubeko lagunek Inauteriei begira makilaje ikastaroa antolatu dute, urtarrilaren 30ean, 11:00etatik 12:30era. Amaraun Klubean izango da tailerra eta doakoa da.

Honetaz gain, bihar, urtarrilak 26, Amaraun Klubeko kide txikienek, 2 urteko laguntxoek gorputza eta ingurunea ezagutzeko saioetako lehena dute. Zumaburu ikastetxeko gimnasioan, arratsaldeko 17:30etik 18:15era egingo da ekintza eta material birziklatuekin jostailu eta jolasak egingo dituzte.

Antolatzaileek azpimarratu dute bi ekintzak familian egitekoak direla, hau da, horretan parte hartu ahal izateko haurrek heldu baten laguntza izan behar dutela.

Informazio gehiago eskuratu edo izena emateko [aisia@ttakun.eus](mailto:aisia@ttakun.eus) helbide elektronikora mezu bat bidali edo 943 37 14 47 zenbakira deitu behar da. Makilaje ikastaroan inskripzioa egiteko azken eguna urtarrilaren 28a izango da.

## KOLEKTOREKO LANAK

## Ganbo kalean aparkalekuak

Lasarte-Oriako Udalak jakitera eman duenez, Ganbo Kalean egunean 24 orduz aparkatu ahal da, Añarbeko Urak-ek kolektore berrirako egingo dituen lanek dirauten bitartean.

Ola kalean oinezkoen irisgarritasuna ziurtatzeko, kolektorearen lanak galtzadatik egingo direla adierazi du Añarbeko urak enpresak. Ondorioz, kaleko hainbat aparkaleku-plaza ez dira erabilgarri izango epe batean. Galera konpentsatzeko, Lasarte-Oriako Udalak Ganbo Kalea irekitzea erabaki du, ibilgailuek egunean 24 orduz aparkatu ahal izateko.

# Makina batek eztanda egin zuen Michelin enpresan

Ostegunean, gauerdian alde-erantz eztanda batek esnatu zituen Michelin enpresa ondoko bizilagunak. Larrituta, larraldietara deitu zuten eta suhiltzaile eta ertzainak hurbildu ziren enpresara. Ordurako enpresa bertako suhiltzaile taldeak kontrolpean zuten egoera.

Enpresako komunikazio arlotik jakinarazi digutenez, garraio handietako gurpilak egiteko mintza lantzen duen mekanizatuko makina bat izan zen lehertu zena. Zehazki, egosketa-eltzea.

### Zauriturik ez

Eztandaren momentuan taile-erreen langileak zeudela jakitera eman digute. "Zorionez momentu horretan ez zegoen langilerik gertu eta ez da zau-

riturik izan", azpimarratu dute.

Kalte materialak, berriz, ugariak dira. Arestian aipatu legez, enpresa bertako larraldi zerbitzuak aski izan ziren egoera kontrolpean izateko. Makinaren eztrandaren ondorioz, esate baterako, "ur-hodi batek ere eztanda egin zuen eta ur-isuria arazorik gabe kontrolatu zuten".

### Eraginik ez

Eztandak Lasarte-Oriako enpresak ekoizten dituen beste produktuetan eraginik izan ez duela ere adierazi dute: "Ez du motorren gurpil-ekoizpenean eraginik izan".

Tailer honetan egindako mintzak beste Michelingo beste fabriketara edo kanpora



Michelin enpresako makinetako batek egin zuen eztanda eta ez da zauriturik izan.

esportatzen dituztela jakitera eman digute.

### Ebaluazioa

Enpresak gertakaria aztertu behar du orain, eztrandaren

zergatia jakin eta berriro gerta ez dadin segurtasun neurriak hartzeko.

Era berean, kalteak ebaluatu behar ditu, hala nola, ekoizpena epe batean geratu

behar den edo ez erabakitze-ko.

Azkenik, Michelin enpresak eztrandak bizilagunei sortutako eragozpenak eta ondorioak sentitzen dituela adierazi digute.

# Azkeneko udal erabakiak baloratu ditu EH Bilduk

Herri Batzarra egingo du alderdiak gaur, Xirimiri elkartean, 19:00etan

**Okendoko garajeak alokairuan jartzea, herriko kaleak asfaltatzea, Erregelamendu Organikoa onartzea, Manttangorri autobus zerbitzua Mugi txartelaren sistemaren barruan sartzea... Udal gobernua hainbat erabaki hartu ditu azkenaldian. EH Bilduk horien balorazioa egin du: "Aurreko legegintzaldian ondo eta zintzoki egin genuen lanak fruituak ematen jarraitzen duela ikusten dugu".**

TXINTXARRI

**O**kendoko garajeen alokairuan jartzea, herriko kaleak asfaltatzea, Manttangorri autobus zerbitzua Mugi sisteman integratzea eta Udal Erregelamendu Organikoa onartzea izan dira udal gobernua azkenaldian hartu dituen erabakietako batzuk.

EH Bilduk horiek baloratu zituen ostegunean egindako prentsa agerraldian. "Aurreko legegintzaldian egin genuen lanak fruituak ematen jarraitzen du honetan ere. Praktikan, udal gobernu berria hori ari da balioesten orain, hala frogatzen baitu azken egun hauetan ikusitakoak, nahiz eta bere garaian aurkako jarrera agertu", azpimarratu zuen koalizio abertzaleak.

## Okendoko garajeak eta kaleen asfaltatzea

Martxan jarri da berriki Okendoko garajeak alokairuan adjudikatzeko prozedura. EH Bilduk "alokairu" hitza nabarmendu zuen agerraldian, esanez PSE-EEK "horiek saltzea" planteatzen zuela hasieran.

"Pribatizazio hori bertan behera uztea izan zen pasaden legealdian hartu genuen lehen erabakietako bat. Konstruktoreak epaitegietara jo zuen konpentsazio baten eske eta, galdu arren, prozedura asko luzatu zen. Ez genuen asmatu arrazoia herritarrei ongi azaltzen beharbada, baina pozik gaude erabakiarekin, garaje horiek herritarren ondasun izaten jarraituko dutelako", aipatu zuen.



Agerraldia egin zuen EH Bilduko zinegotziek ostegunean, azkeneko udal erabakiak baloratzeko.

Asfaltatzeari dagokionean, koalizio abertzaleak jakinarazi zuen "lanak egiteko dirua eta pleguak prest" zeudela jada: "2015eko aurrekontuetan onartu zen, nahiz eta PSEk aurka bozkatu; prozedura administratiboa egin du soilik".

## Manttangorri Mugi sisteman

"Izugarri pozten gara Manttangorri zerbitzua Mugi sisteman integratzeaz, hala behar zuen eta horretarako egin

genuen lan", azaldu zuten. "Babes legalik ez zuen zerbitzu batekin egin genuen topoz; zerbitzua erregularizatu genuen eta prozedura administratiboa abiatu, baita aurrekontuetan sartu ere; fruituak orain jaso ditugu, lau urteotan Plataformako zinegotziak egindako lanari esker".

Udal Erregelamendu Organikoari buruz ere aritu ziren. "Aldaketa gutxirekin atera da aurrera. PSE-EEri lotsa eragiten

zion hogeitaka urtetan ez egindakoa iritsi berria zen alderdi batekin egitea. Nahiz eta beste alderdi batekin ekarri, baiezkoa eman diogu guk, fruitua baita garrantzizkoa eta ez uzta norik egiten duen".

## Herri Batzarra gaur

EH Bilduk herri batzarra egingo du gaur Xirimiri elkartean, 19:00etan. Hauteskundeak baloratuko ditu eta aurrera begirakoei buruz hitz egin.

## Blues doinuak Ñaco Goñi eta Fernando Beizteguiren eskutik

**Ñ**aco Goñi harmonika-jotzaile ezagunak blues doinuez jositako emanaldia eskaini zuen ostiral gauean Furia Beltza tabernan, Fernando Beiztegui gitarra-jotzailearekin batera. Hainbat herritar gerturatu ziren kontzertuaz gozatzeraz.

14 urterekin hasi zen Goñi harmonika jotzen, Madrilgo metro geltoki batean. Bertan ekin zion gerora luzea eta oparoa izaten ari den ibilbideari, ikasketak alde batera utzita. Malcolm Scarpa gitarristarekin osatu zuen bikotea.

Orduz geroztik, hainbat egitasmotan hartu du parte harmonika joleak: Tonky Blues Band talde mitikoan, Jockers taldean (gerora banandu eta zenbait kidek 'Los Bluescavidas' izeneko osatu zuten)... Gainera, Loquillo y los trogloditas taldearen 'Motoristas' single-an parte hartu zuen.

Beste hainbat artistarekin batera jo izan du Goñik. Fernando Beizteguirekin batera askotan aritu izan da, ostiraleko emanaldian bezala. Larunbatean berriz, Elizondoko Ilargi Ostatuan jo zuten.

## Pettiren emanaldia Jalgi Kafe Antzokian, ostiralean

Herritarrek beste hitzordu bat dute ostiral honetan, Jalgi Kafe Antzokian. Petti artista nafarrak rock emanaldia eskainiko du, 23:00etatik aurrera.

Gitarra-doinuak, ahots sakona eta eszenografia indartsua konbinatzen ditu musikariak haren kontzertuetan. Hainbat disko kaleratu ditu urteotan, Anari, Rafa Rueda eta Txuma Murugarren bezalako artistekin elkarlanean, nahiz eta bakarlarri gisa aritzen den normalean.



Ñaco Goñik eta Fernando Beizteguik emanaldi bikaina eskaini zuten ostiralean.

kontzertua

# PETTI

Urtarrilak 29 ostirala,  
23:00etan  
Jalgi Kafe Antzokian

Harkaitz Cano Idazlea

# “Ipuinak KOz irabazi behar dira”

‘Beti oporretan’ izeneko ipuin bilduma argitaratu berri du Harkaitz Cano idazle lasarteoriatarak

10 urte eta gero, ipuin bilduma argitaratu du berriro ere Harkaitz Canok, ‘Beti oporretan’ izeneko. 14 istorio bildu ditu idazle lasarteoriatarak, klasikoak batzuk eta espermentalagoak besteak. Udar edota oporraldi ezberdinetan girotutakoak denak. Antzerkigintzan murgilduta ere badabil; Euskaldunon Egunkariaren itxierari buruzko antzerkia idazten ari da.

MARTIN VICIOSO

Ipuinak, eleberriak ez bezala, KOz irabazten direla uste du Harkaitz Canok. Izan ere, orrialde gutxitan irakurlea liluratzeko ez da erraza. ‘Beti oporretan’ ipuin bildumari buruz, bertan jorrotutako gaien eta etorkizunera begirako proiektuen inguruan hitz dugu harekin.

**10 urte kontakizun liburua atera gabe, argi zenuen halakoa egin nahi zenuela?**

Esango nuke ipuinak ez direla idazten ipuin liburuetan pentsatuz. Istorio bakoitzari dagokion neurria eman, eta denborarekin konturatzen zara gai batzuk errepikakorrek direla, eta orduan hasten zara modu ‘maliziosoago’ batean bilduman pentsatzen. Aleka idazten dira, eta pixkanaka konstelazio modukoa osatzen joaten naiz.

**Kasu honetan oporraldian oinarritutako kontakizunak bildu dituzu liburuan. Zergatik?**

‘Beti Oporretan’ izenburua neure buruari egindako keinu ironikoa da. Beti oporretan dagoena ez dago inoiz oporretan edo hilda dago. Andoni Egañak esaten zuen “lanik gabe bizitzeko lan asko egin behar dela”.

Bestalde, eta serioago hitz eginda, badago nik gustuko ditudan pelikula batzuetan komuna den giroa. Udako Mediterraneoko parajeetan, hondartzan... badirudi dena ondo doala, zorientasuna nagusi dela, baina momenturen batean zerbait gertatuko denaren susmoa daukazu.

**Nahiz eta oporrek izan ardatza, gai ezberdin asko jorrotatu dituzu forma desberdinetan. Hori zen asmoa?**

Argi dago badaudela ipuin klasikoagoak eta espermentalagoak, ‘Boeing 767’ kasu. Hegazkin batean gertatzen da, baina zehazki, jendearen buru barnean. Hiltzera doazen 200 pertsonen burutik zer pasatzen da? Hortik tiraka, komarik eta punturik gabe, erreskada handi batean egindako ipuina atera da.

Mediterraneoko girotik

aldendu arren, opor bereziak kontatzen dituen safariarena da. Ipuin klasikoagoa dela esan daiteke. Irakurlearengan susmo batzuk pizten ditu, eta istorioak aurrera egin ahala, baieztatu egiten ditu. Agian, espero ez zuen moduan.

**Testuinguru orokorretatik abiatuta oso istorio pertsonalak idatzi dituzu.**

Asko interesatzen zait pertsonen jokamoldeak jorrotzea. Muturreko egoeratan nola jokatuko genukeen jakiteko edo esperimintatzeko laborategia badira ipuinak.

Gure artean bereizgarriak diren pertsonaiak bilatzen saiatu naiz eta horien bidez giza jokabideak landu. Nola kudeatu lotsa edo maitasuna? Nola desamodioa eta harreman mota berriak, romantizismotik aldentzen direnak? Esaterako, leialtasun eza gure literaturan ‘Madam Bovary’-tik hona berdin jorrotu dugu, ez da gehiegi aldatu.

**Udako kanta italiarren antza duten ipuinak direla aipatu izan duzu. Nolako dira kanta italiar horiek?**

Balada estilokoak askotan, 60ko hamarkada bukaerakoak. Oso erraz sartzen diren kantuak dira, itsasorrrak. Gauza atseginak kontatzen dituzte, baina askotan udaren amaiera ere antzeman daiteke horietan.

Italierak eta gaztelaniak antza dutenez, lehenengo entzutean uler daitezke. Baina, letretan arretaz erreparratuz gero, konturatzen zara ez zeukala zuk buruan zenuenarekin hainbesteko zerikusirik. Ipuinetan hori dut gustuko. Erraz irakurtzea, baina azpian zerbait aztoragarria egotea.

**Idazlerik agertzen ez den 200 orrialde baino gutxiagoko liburua egin nahi omen zenuen, eta gutxigatik ez duzu lortu. Zaila da zeureganatutako ohitura horiek galtzea?**

Azken batean bakoitzak gure estiloa dugu eta neurri batean haren gatibu ere bagara. Ez dut uste txarra denik. Eta ofizioak hori dauka. Narratiboki planteatutako zaigun arazoari



2005ean argitaratu zuen aurreko ipuin bilduma: ‘Neguko zirku’.

erantzuna ematen diogu, baina beti antzeko soluzioak aurkitzeko arriskua dugu. Gustatzen zait neure buruari kontra egitea, eta batzuetan lortu egiten dut eta bestetan ez. Erabat garaitzea ez duzu inoiz lortzen, eta ondo dago tentsio hori mantentzea, zure berezko joerak kontrapisu batekin orekatzea.

**Nola planteatzen duzu ariketa hori?**

Nik nire buruari instintiboki utziko banioke idazten, ‘Boeing 767’ ipuinean bezala idatziko nuke dena, baina modu are barrokoago eta lirikoago batean. Baina norbere ahalmenak eta gustuek ez dute zertan bat egin. Eta nik gogoko ditudan idazleak askoz ere narratiboagoak dira; lehorragoak eta kontatzaileagoak. Lirikoak baino, zehatzak.

Bestalde, idazketaren zati garrantzitsuena berridazketa dela esango nuke. Idaztea erraza da. Zure profesioa ikusten da zaborrontzian dituzun gauzei erreparatzean. Sarrionandiak bazuen hitz bat: “Zaramologia”. Esan iezadazu zer botatzen duzun zaborretara eta esango dizut nor zaren. Hori da ariketa. Hemingway-ek ere esaten zuen: “Kill your darlings”. Gehien maite dituzun esaldi horiek, maitemintzen zaituzten pasarte horiek kendu narrazioarentzat beharrezkoak ez badira. Kontakizunak balio du haiek gabe? Ba, beharbada, ez ziren beharrezkoak.

**Zer moduzko inpresioa hartu du jendeak?**

Ona, esango nuke. Ipuin liburuarekin gertatu ohi den

moduan, bakoitzak aipatzen dizu bata edo bestea. Irakurle mota ezberdinak ere badaude. Batzuek estimatzen dituzte gehiago kontakizun espermentalagoak, ‘Boeing 767’ kasu, eta beste batzuek nahiago dituzte klasikoagoak, safariarena esaterako. Baina ez nuke esango bata edo bestea kuttunen artean nabarmentzen direnik.

**Kartzelera ahizpa bisita egitera joaten den emakumearena izan zait bereziki deigarria.**

Horrek ere erantzun ona jaso du. Kasu horretan, pertsonaien argilunak azpimarratzen saiatu naiz, eta agian, ahizpa kartzelera bisitatzera doan emakumearengan espero ez diren jarrerak isladatu.

Nire ustez, ipuinak hiru ezaugarri behar ditu: xamurtasuna, krudelkeria eta arriskua. Hiruen konbinazioarekin idatz daitezke guztiak Batzuetan bat gailenduko zaio besteari. Chandlerrek esaten zuen: “Tipo gogorra ez banintz ez nintzen bizirik egongo, eta tipo xamurra izaten jakingo ez banu ez nuke bizirik egotea mereziko”.

**Hitz edo orrialde gutxitan istorioak zehaztea zaila al da?**

Hala da. Ipuinak KOz irabazten dituzu edo akabatuta zaude. Eleberria, boxeoan bezala, puntutara irabazi dezakezu. Ipuinarekin ez da hori gertatzen. Kale edo bale izaten ohi da. Ondorioz, batzuetan asmatu egiten duzu eta besteetan, ez.

**Aurrera begirako proiekturik?**

Gogo handiz hartu dudana

enkargua dut. Euskaldunon Egunkariaren itxierari buruzko antzerkia idaztea, alegia. Eta hortxe nabil, kazetaritzari eta Egunkariaren itxierari buruz idazten. Izan ere, azken urteetan ofizioan eman diren aldaketei buruzko gogoeta egin nahi dut, gertakizunak kontatzeaz gain.

**Lehen aldia da antzerki obra idazten duzula?**

Bai. Antzerki obrak beste hizkuntzetatik itzuli izan ditut, baita pieza txikiak egin ere. Egingo dudana lehenengo obra nagusia da, eta gogotsu nabil, egia esan. Telesailako gidoiekin egin dut lan, baina antzerkiak beste erritmo bat du. Eleberri bateko elkarrizketek eta antzerkikoek ez dute zerikusirik.

**Antzerkira joanda, gidoiak irakurrita... nola prestatu zara?**

Beti izan naiz antzerki zalea eta asko joaten naiz, baita oporretara joatean ere. Irakurtzea ere gustuko dut. Batez ere, erritmo kontuak harrapatzeko. Egia da, azkenaldian egiten diren telesailak antzerkiaren oso antzekoak direla. Testu asko daukate. Telebista eta zinema gero eta gehiago sostengatzen dira ‘parlaturan’, irudiak garrantzitsu izaten jarraitzen duen arren. Ikusten baditugu Aaron Sorkinen telesailak edota filmeak –Steve Jobsi buruzko filme berria, Newsroom, West Wing, etab.– pertsonaiak etengabe hizketan daude. Oinez daude momentu oro. ‘Walk and talk’ esaten zaie. Nahiko nuke nire obran pertsonaiek asko jardutea, eta uste dut antzerkiak horretarako aukera ematen duela.

## ARETO-FUTBOLA.-

# Jokatutako norgehiagoka bakoitza ikasgai

Lasarte Kafe Bar Ostadarrek 2-6 galdu zuen atzo Summa Aldapeta liderraren aurka

Jardunaldiz jardunaldi aurrerapausoak ematen ari da Gipuzkoako jubenil mailako Lasarte Kafe Bar Ostadar taldea. Imanol Azkue eta Mikel Escribanok zuzendutako jokalariek askok lehenengo denboraldia dute aurtengoa kirol eta kategoria honetan, eta ez dira batere gaizki ari. Partidu gogorra zuten atzokoan, norgehiagoka denak irabazi dituen Summa Aldapetaren aurka. Atzokoa ere zakuratu zuen, 2-6 irabazita.

## TXINTXARRI

Lasarte Kafe Bar Ostadar taldea jokatzen ikustean ez da antzematen jokalariek estreineko denboraldia dutela areto-futbolearen eta jubenil kategorian. Abuztuaren elkartu eta lanean hasi zirenetik, euren jokoak kalitate jauzi handia eman du, kategoriako liderrari aurre egiteraino.

Ez zen izan partidu samurra atzokoa Imanol Azkue eta Mikel Escribanok zuzendutako taldearentzat. Donostiako Summa Aldapeta hamar partidutik hamar irabaztetik zetorren Michelingo kirol-gunera. Hamaikagarrena zakuratu zuten atzo 2-6 irabazita; gogotik izerdituz, hori bai.

Oreka eta joko trabatua izan zen nagusi lehenengo

minutuetan. Kanpoko taldeak zeraman jokoaren pisua, baina defentsa-lan ederra egin zuten herritarrek, donostiarraren eraso denak moztuz.

Summa Aldapetak etxekoek lehen zatian egindako akats bakarretako bat baliatu zuen 0-1ekoa sartzeko. Falta bat gaizki atera zuten urdin-beltzek, eta kontraerasoan maisuki sareratu zuten baloia donostiarrek. Hortik aurrera, herritarrek markagailua iraultzeko gogotik borrokatu bazuten ere, liderrak erakutsi zuen zergatik dagoen sailkapenaren maila gorenean, eta hiru puntuak eraman zituen bueltan Donostiara.

Lehenengo sasoi izanagatik, ederki ari da Lasarte Kafe Bar Ostadar, eta jokatutako hamaika partiduetan hamar puntu zakuratu ditu.



Garesti saldu zuen atzoko porrota Lasarte Kafe Bar Ostadar taldeak.

## Cecilia Kebab Ostadar sendo lidertzan

Gipuzkoako 2. mailako lehen bi sailkatuek, Anoetak eta Cecilia Kebab Ostadarrek, indarrak neurtu zituzten ostira-lean Abraham Olano kiroldegian. Bana berdindu zuten, eta horri esker lidergoan jarraitzen dute herritarrek.

3. Nazionaleko Ostadar Antonio Ostadarrek berriz, 3-1 galdu zuen Presion Break liderraren aurka. Beheko postuetatik ihes egiteko lehian ari dira.



Aurten eratu da Gipuzkoako jubenil mailako Lasarte Kafe Bar Ostadar.

## FUTBOLA.-

## Derbia, Texas Lasartearrantzat

Bi urteren buruan, herriko bi futbol taldeen arteko derbia itzuli zen Michelingo zelaira larunbatean, ohiko osagaiekin: Intentsitatearekin, emozioarekin eta, batez ere, golek. Texas Lasartearrak eta Ostadarrek amaieraraino borrokatu zuten hiru puntuak zakuratzeko, baina zuri-urdinek lortu zuten garaipena azkenean: 4-3.

Texas hobeto zelairatu zen Michelingo berdeguna, eta hori baliatu zuen markagailuan bi goleko abantaila jartzeko, Ederren eta taldearen azken fitxaketa Miguel Angelen golen bitartez. Ostadarrek ez zuen amore eman ordea, eta atsedenaldira joan baino lehen alde murriztu zuen, Mikel Gonzalezen gol bati esker. 2-1ekoarekin joan ziren atsedenaldira bi taldeak; dena erabakitzeke zegoen oraindik Michelinen.



Bi taldeek batera atera zuten argazkia jokatzen hasi aurretik.

Lehenengo zatian Texasek hobeto jokatu bazuen, bigarrenean Ostadar izan zen nagusi, hark eduki baitzituen aukera onenak berdinketa lortzeko. Hala egin zuen talde urdin-beltzak, Jon Kortak sareraturako penalti baten bidez.

Bazirudien Ander Recondoren mutilek edozein unetan irauliko zutela markagailua,

baina Josu Garciak sekulako gola sartu zuen Texasi abantaila emanez berriro ere. Bigarrena sartu zuen handik gutxira, arean aldaratze bat baliatuz. Gisa honetako derbietan ezin dira partiduak bukatutzat jo. Kortak 4-3koa sartu zuen emozioa emanez norgehiagokari, baina markagailua ez zen gehiago mugitu.

## PILOTA.-

## Intza KEko senior taldeen garaipenak Udaberriko txapelketan

Udaberri txapelketan murgilduta daude Intza KEren 1go eta 2. mailako seniorrak. Larunbatean Michelingo frontoian aritu ziren biak, eta bitik bi norgehiagoka irabazi zituzten, Orio eta Iparraldekoak taldeen aurka hain zuten ere.

Jon Pello Artetek eta Mikel Elolak txapelketako lehen partiduak jokatu zuten, dagoeneko hirugarren jardunaldia izanda ere (Azkoitia ez zen aurkeztu eta Aurrera Saiaz erretiratu egin zen), eta norgehiagoka oso txukuna jokatuz 22-12 hartu zuten mendean Orio.

2. mailari dagokionean, Gorka Mendizabal eta Aritz Solanok txapelketako lehenengo garaipena eskuratu zuten, Iparraldekoak taldea 13-22 mendean hartuz. Herritarrek nagusi izan ziren norgehiagoka osoan zehar eta horrela islatu zuten markagailuan.



Igo mailako seniorrak ederki aritu ziren Orioren aurka larunbatean.

## Agenda

Asteartea eta osteguna, 19:00etan, Antonio Mercero aretoa



### Elkarbizitzaren alde lanean

Baketik Lasarte-Orian egiten ari den lanaren baitan 'Bizikidetzaren berreraikitzen' jardunaldiak izango dira. Asteartean, Andres Krakenberger giza eskubideen aldeko aktibistak 'Oroimen kolektiboa eta bateratzaile bat helburu' saioa eskainiko du. Ostegunean, berriz, Paco Etxeberria Aranzadiko kideak 'Torturaren ikerketa Euskadin. 1960-2010' izango du mintzagai.

en la nieve' filma ikusteko aukera. Sarrera, 5,50 euro.

### Erakusketa

JALGI KAFE ANTZOKIA  
Urtarrilean zehar

Jose Luis Oria margolariaren lanak, lore, paisai edo bodegoiak ikusgai.



### Usurbil

#### Hitzaldia

POTXOENEA KULTUR ETXEA  
Ostirala, 18:30ean

Ainhoa Intxaurrendietak hitzaldia eskainiko du, Erraustegia Erabakia taldeak antolatuta. Jorratuko duen gaia: 'Errauskailua Gipuzkoan. Ez al genuen, ba, gelditu?'.

### Lasarte-Oria

#### Hitzaldia

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Asteartea, 18:00etan

Karme Gurrutxaga psikologoak 'Etxean Zaintzearen Erronka: Zaintzaileei Zuzendutako Laguntza-Taldeak Babeserako Neurri Bezala' hitzaldia eskainiko du.

### Musika

AMA BRIGITARREN KOMENTUA

Ostirala, 19:30ean

'Duo L'Incontro' taldearen kontzertua Danok Kidek antolatzen dituen XI. Musika Topaketan barruan. Francesca Romana di Nicola harpista eta Itziar Lujanbio oboe-joleak osatzen dute bikotea.



JALGI KAFE ANTZOKIA

Ostirala, 23:00etan

Petti abeslari beratarren kontzertuaz gozatu ahalko da. Sarrera doan.

### Antzerkia

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Larunbata, 18:30ean

Tartean teatro konpaniak 'Amour' lana eskainiko du. Haurrentzako eta helduentzako egokia den obra. Sarrera, 3,80 euro.

### Zinea

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Igandea, 17:00etan

Haurrentzako zinea atalean, 'Aviones de papel' filma ikusteko aukera. Sarrera, 3,80 euro.

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Igandea, 20:00etan

Helduentzako zinea atalean, 'Palmeras

### Energia azoka

DEMA PLAZA

Larunbata, 10:00etatik aurrera

Usurbilgo Udalak eta Lanbide eskolak antolatuta, Energia azoka izango da. Energia berriztagarriak eta eraginkortasun energetikoa gai hartuta eduki desberdineko postuak egongo dira. Eraginkortasun energetikoaren kultura eta energia garbieraren erabilera hedatzea asmoz bertan hainbat gailu erakusgai egongo dira. Etxeko faktura ulertzeko azalpenak ere emango dira.

### Irakurle Txokoa

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Asteartea 26, 18:30ean

Irakurle txokoko lagunak Euskadi saria izandako 'Su Zelaiak' liburuari buruz mintzatu dira Mikel Peruarena egilearekin. Txokoko gidari gisa, Danele Sarriugarte ariko da.

## Herritarren txokoa

### Maria Auxiliadoraren ohorezko meza gaur

Zumaburuko Arantzazuko Amaren elizan Maria Auxiliadoraren omenezko meza ospatuko da, gaur urtarrilaren 25ean, arratsaldeko 17:00etan.

### Odol-ateratzea

Gaur hilabeteko azken astelehena denez, odola eman ahal izango da Osasun Zentroan, arratsaldeko 17:30etik 20:30era.

Anima zaitezte, odola ordezkazina da eta odol falta dago!

### Galdutako betaurrekoak

Ikusteko betaurrekoak galdu ditut Sasoeta ibilbideko paseoan, N-1 errepide parekoan edo Plazaola bidean.

Aurkitzen dituenak mesedez jarri harremanetan honako telefono zenbakian, 600 67 78 72 (Axun).

### Karteta jolasteko taldea

Emakume heldu bati larunbata arratsaldetan kartetan (mus, truke...) jokasteko taldea sortzea gustatuko

litzaioke. Interesa duena jar dadila harremanetan honako telefono zenbakian 21:30ak baino lehen: 943 36 33 71, Ana.

### Eskutitza

#### Elkarbizi taldea 'Elkarbizitza berreraikitzen' jardunaldien alde

Urteetako indarkeria politikoaren ostean, erabili zuten horiek sorturiko kalteak konpontzeko ahalegin guztia egiten ari gara. Izugarria da gutxiengo batek sortu dezakeen sufrimendua. Elkarbizitza ez da bera bakarrik sortzen. Egunero-egunero pertsona guztien artean lortzen dugu, gutxi batzuen ekintzek suntsitu egin badezakete ere. Bakar batzuk gure bizilagunak hil dituzte edo hauen hilketak justifikatu dute, beste gizaki batzuei torturatuak jasanarazi diete, baita pertsonen duintasun bortxatu ere. Elkarbizitza bakarrik sortzen ez denez, parte-hartze pertsonala eskatzen du, baita elkarbizitzeko jarrera pre-politiko bat ere, trintxera sozialak ireki gabe, konfrontazioari uko egitea ardatz izanik.

Elkarbizitzaz hitzegiteak, elkarbizitzan aurrera pausoak dakartza, baita gatazka sortzen dutenei ateak ixtea ere. Horregatik, positiboki baloratzen

ditugu, Lasarte-Oriako udalak antolatu dituen hitzaldiak, hilabete honetan izango dira, eta gure herriko bizilagunak parte hartzea animatzen ditugu.

Elkarbizi taldea

**Zuen oharrak jarri, kexak adierazi edo eskutitzak argitaratzeko:**

Geltoki kalea, 4 943 366858 txintzarri@txintzarri.eus



- ▶ **DBH:** 12 urtetik 16 urte bitarte
- ▶ **Batxilergoa:** 16 urtetik 18 urte bitarte

**MATRIKULAZIOA:**  
urtarrilaren 25etik otsailaren 5era

- Euskal kultura eta euskara bultzatzen dituen
- Aniztasunaren trataera: Hezkuntza Berriaz Sendotzeko Proiektua (HBSP), Pedagogiko Terapeutak (PT), Aniztasun Curricularreko taldea (AC), Bidelaguna (eskolaz kanpoko laguntza), laguntzako irakasleak, Hizkuntza Indartzeko Proiektuko Irakaslea (HIPI) eta orientatzaileak
- Teknologia berrien erabilera. Baliabide digitalak eta ikasgela guztietan sareko konexioa
- Frantsesa aukeran DBHko 4. mailatik aurrera
- Jangela zerbitzua
- Eskolaz kanpoko jarduerak: kirola, antzerkia, dantza...

**1. DBHrako bilerak:** urtarrilaren 26an arratsaldeko 19:00etan, Pintore kaleko eraikinean

### **Matrikulatzako tokiak:**

Pintore kaleko eraikinean - Tel. 943 37 28 90 - Landaberribhi@outlook.com

**Ordutegia:** asteleheneetik ostiralera 08:30etatik 11:30etara.

astelehena, asteartea eta ostegunean arratsaldez 14:30etatik 16:00etara



Landaberri Institutua  
Pintore kalea, 2  
Tel. 943 37 28 90  
landaberribhi@outlook.com  
www.landaberri.net

Lasarte-Usurbil Institutua  
Buenos Aires aldapa, 1  
Tel. 943 37 28 52 / 37 22 77  
lasarte-bhi@instilasarte.net  
www.instilasarte.hezkuntza.net